# Bestelako Xedapenak

**INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**4930**

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 6koa, Industria eta Energiako sailburuordearena, zeinen bidez argitaratzen baita 2010. urtean diru-laguntzak emateko bigarren deialdia, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo ETE berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen duen aginduak ezarritako esparruaren barruan.

Teknologia-oinarriko ETEak eta/edo ETE berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen du Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2007ko maiatzaren 21eko Aginduak (2007ko ekainaren 12ko EHAA, 112. zenbakia); agindu hori 2007ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez aldatu da (2008ko urtarrilaren 29ko EHAA, 20. zenbakia).

2010eko apirilaren 8ko Ebazpenaren bidez argitara eman zen 2010. urtean laguntzak emateko deialdia, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo ETE berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen zuen Aginduan ezarritako esparruaren barruan. Laguntzek 26.000.000 euroko aurrekontua dute, eta eskariak aurkezteko epea 2010eko maiatzaren 31n bukatu zen, horretarako izendatutako kreditua bukatu ez zen arren.

Diru-laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak abenduaren 23ko 2/2009 Legean horretarako izendatutako aurrekontu-ataletatik aterako dira. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartu zituen 2010erako.

Eskariak aurkezteko epea bukaturik eta lehenengo deialdian ebatzirik, eta kontuan izanda laguntza gehiago emateko funtsak badituztela, horretara zuzendutako kopurua ez baita agortu, agindu horren 12. artikuluak dioenez, 2010eko ekitaldiko laguntzetarako deialdia egiten da, eta horretarako beharrezko arauak ematen dira. Hori dela eta, honako hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.–*** Xedea.

Teknologia-oinarriko ETEak eta/edo ETE berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen duen Aginduan au-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO**

**4930**

RESOLUCIÓN de 6 de octubre de 2010, del Viceconsejero de Industria y Energía, por la que se hace pública la segunda convocatoria de concesión de ayudas para el ejercicio 2010, dentro del marco establecido por la Orden por la que se regula el programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de Pymes de base tecnológica y/o innovadoras.

La Orden de 21 de mayo de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, regula el programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de Pymes de base tecnológica y/o innovadoras (BOPV n.º 112, de 12 de junio de 2007), modificada por otra de 18 de diciembre de 2007 (BOPV n.º 20, de 29 de enero de 2008).

Mediante Resolución de 8 de abril de 2010, se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para el ejercicio 2010, dentro del marco establecido por la Orden por la que se regula el Programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de Pymes de base tecnológica y/o innovadoras, con un presupuesto de 26.000.000 euros, y cuyo plazo de presentación de solicitudes, aún no habiéndose agotado el crédito consignado al efecto, finalizó el día 31 de mayo de 2010.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas proceden de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2010.

Habiendo finalizado el plazo para la presentación de las solicitudes, resueltas las mismas en la primera convocatoria y contando con fondos suficientes para realizar nuevas concesiones ya que no se ha agotado el importe destinado a las mismas, de conformidad a lo establecido en el artículo 12 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas para el ejercicio 2010, dictando a tal objeto las normas necesarias,

RESUELVO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

Es objeto de la presente Resolución la realización de una nueva convocatoria, para el ejercicio 2010, de las ayudas, bajo la forma de anticipos reintegrables,

rreikusitako laguntzerako beste deialdi bat egitea 2010erako da ebazpen honen xedea; laguntza horiek aurrerakin itzulgarri moduan emango dira.

Xede horretarako, guztira, 9.902.945,74 euro bideratuko dira, abenduaren 23ko 2/2009 Legean hartarako ezarritako aurrekontu-ataletako kredituen kontura; lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartu zituen 2010erako.

Deialdi honen kontura emango diren dirulaguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko artikulu honetan ezarritako zenbatekoa edo zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena, indarreko legeriak kreditu-loturari edo aurrekontu-aldaketari buruz aurreikusi duenari jarraiki. Horrenbestez, diru-kopuru hori ahitutakoan, ezin izango da laguntza gehiago eman, eta, beraz, hortik aurrera, baliorik gabe geratuko da ebazpen hau. Egoera horietakoren bat gertatuz gero, horren berri jakinaraziko da Industria eta Energiako sailburuordearen ebazpen bidez.

***2. artikulua.–*** Betekizunak.

Teknologia-oinarriko ETEak edo berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen duen aginduan jasotako diru-laguntzak eskuratzeko, eskatzaileek erakunde onuradunaren izaera izan beharko dute, 2007ko maiatzaren 21eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

***3. artikulua.–*** Eskabideak eta epea.

1.– Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak honako toki hauetakoren batean aurkeztu beharko dira: ISEB Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuan (Urkixo Zumarkalea 36, 4. solairua - Bilbao) zuzenean, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako bideren bat erabilita –lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatu zen–.

Eskabide-eredua eta formularioak Interneten bete eta/edo eskuratu ahal izango dira, honako helbide honetan: www.spri.net/gauzatu.

2.– Eskabideak aurkezteko epea, hasi, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta, amaitu, 2010eko azaroaren 29an amaituko da, horretarako izendatutako kreditua lehenago agortu ez bada, behintzat.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

***Bigarrena***.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu dakioke Eusko Jaurlaritzako

previstas en la Orden por la que se regula el programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de Pymes de base tecnológica y/o innovadoras.

Para este fin se destina un total de 9.902.945,74 euros, con cargo a los créditos asignados en las partidas presupuestarias establecidas en la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2010.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria no podrá superar el importe consignado en este artículo, o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose, a partir de ese momento, la eficacia de la presente disposición. En su caso, de ambas circunstancias se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Industria y Energía.

***Artículo 2.–*** Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden por la que se regula el Programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de Pymes de base tecnológica y/o innovadoras, deberán ostentar la condición de entidad beneficiaria, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la citada Orden de 21 de mayo de 2007.

***Artículo 3.–*** Solicitudes y plazo.

1.– Asimismo, deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), cuyas dependencias se encuentran en Bilbao, c/ Alameda de Urquijo, 36-4.ª planta, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

El modelo de solicitud y formularios se podrán cumplimentar y/o descargar en la dirección de Internet, www.spri.net/gauzatu.

2.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de esta Resolución y, en tanto no se haya agotado el crédito consignado al efecto, finalizará el día 29 de noviembre de 2010.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 6a.

Industria eta Energiako sailburuordea,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.

Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2010.

El Viceconsejero de Industria y Energía,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.